

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 331/2020 Erabakia, uztailearen 21ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak Gasteizko tranbia Salburura luzatzea (2. fasea) finantzatu eta eraikitzeko jarraipen batzordean izango duen ordezkari izendatzeari

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzkoak, bere 8. artikuluan, 9. eta 10. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da, Gasteizko tranbia Salburura luzatzeko lanak (bigarren fasea) finantzatzeko eta eraikitzeko jarraipen batzordean izendatzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. I eranskinean aipatzen diren Arabako Foru Aldundiko ordezkarien izendapena onartzea foru administrazioak partaidetza duen erakundearen erregistroko kodeaz identifikatutako hainbat entitatetan.

Bigarrena: Erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango du indarra, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailearen 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu Nagusiaren Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN

I eranskina/ Anexo I
Arabako Foru Aldundiaren ordezkarien izandapenak eta kentzeak/
Nombramientos y ceses de representantes de la Diputación Foral de Álava

izendapena/nombramiento

kentzea/cese

titularra/ordezkoa
titular/suplente

02 DIPUTATU NAGUSIA / 02 DIPUTADO GENERAL

393 COMISIÓN DE SEGUIMIENTO PARA LA FINANCIACIÓN Y CONSTRUCCIÓN DE LA PROLONGACIÓN DEL TRAMVÍA DE VITORIA-GASTEIZ A SALBURUA 2ª FASE
Javier Hurtado Dominguez, Bide Azplegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua / Diputado Foral de Infraestructuras Vianas y Movilidad

titular / titularra